

"Hezkuntzak euskara gehiago behar du" sinadura bilketa

Euskalgintzaren Kontseiluak sinadura kanpaina bat abiatu du **Hezkuntzak euskara gehiago behar du** leloaren pean, eta Eusko Legebiltzarrean eztabaidaren azken fasean sartu den Hezkuntza Legeari begira. Kanpaina hau aste honetan abiatu da Gasteizen egindako ekitaldi batekin, eta urriaren 15a bitarte luzatuko da.



Ikastolen Elkartearen Artezkaritza Kontseiluak, bere azkeneko bileran, **kanpaina honekin bat egitea erabaki zuen eta berau ikastoletan zabaltzea eta ikastolak kanpainen parte hartzera animatzea.**

Sinadura hauen bidez Eusko Legebiltzarreko kideei EAeko Hezkuntza Lege berriak honako hiru puntuak berriaz jaso ditzala eskatu nahi zaie:

- Euskara ikas- eta irakats-hizkuntza izango duen eredu orokortu inklusiboa.
- Euskal kultura ardatz izango duen euskal curriculum.
- Hezkuntza ez-arautua osorik euskaraz garatzea.

Sinadura bilketa **2023ko irailaren 12tik urriaren 15era** luzatuko da, eta 16 urtetik gorako Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritarrek sinatu ahal izango dute eskaria, bi modutara: presentzialki, sinatzeko jarriko diren mahaietan (gure kasuan ikastola bakoitzak jarriko duen/dituen mahaietan), edo <https://euskaragehiago.eus/> webgunean online. Pertsona bakoitzak behin bakarrik sinatu ahal izango du eskaria, izen-abizenak eta nortasun agiria adieraziz.

[Informazio gehiago...](#)

Artezkaritza-kontseiluaren bilera-data

Irailaren 20an izango da ikasturteko Artezkaritza-Kontseiluaren lehen bilera. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, artezkaritza@udarregi.eus helbidera bidaliz jakinaraz dezakezue.



Ikasketa-beka

2023/2024 ikasturterako Eusko Jaurlaritzak bideratzen duen beka eskatzeko epea **irailaren 30era** arte irekita egongo da.

Informazio guztia [hemen klikatuta](#) ikus dezakezue. Edozein zalantza argitzeko edo argibide gehiagorako idazkaritzarekin jarri harremanetan.

Era berean, Udaregi Ikastolak, irakaskuntzaren finantzazioari laguntzeko asmoz, beka-sistema propioa eskainiko die bere bazkideei. Beka-sistemaren baldintzak, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta zenbatekoaren inguruko xehetasunak [hemen klikatuz](#) irakur daitezke.



diru-laguntzaren

Liburutruk

Liburutruken parte hartzen duten ikasleei, liburuak, ikastolako lehenengo egun hauetan banatzen ari zaizkie. Liburuak jasotzearekin batera, ikasle bakoitzak liburu guztiak jaso dituela egiaztatu beharko du. Edozein gora-behera zuzentzeko 10 eguneko epea egongo da. Epe hori pasata, liburu guztiak behar bezala jaso direla ulertuko da. Ikasturte amaieran liburu guztiak egoera egokian (puskatu eta margotu gabe,...) itzultzen ez badira, bere kostu prezioan kobratuko dira.

Bigarren zatia kobrantza, irailean egingo dela jakinarazten da.



Jangela-zerbitzuaren oharrak

❖ **Jangela batzordea:** bertan jangela-zerbitzuaren eskaintzaz, funtzionamenduaz, antolamenduaz eta menuez hitz egiten da, besteak beste. Funtzionamenduaren jarraipena egiteko, bi hilabetez behin ordubeteko bilerak egiten dira. Bertan parte hartu nahiko bazenu, idazkaritzara deitu edo gelako tutoreari adierazi.



❖ **Iraileko menua:** zerbitzua lehenengo egunetik eskaintzen da eta hilabete honetan emango den menua honakoa izango da:

- 0 – 3 urte. [Haur eskolako menua](#)
- 3 – 16 urte. [Menu arrunta](#)
- 3 – 16 urte. [Intolerantziadun menua](#)

Jantoki-zerbitzua bi txandatan eskaintzen da:

- **Lehen txanda:** 12:30etik 13:30era. HH 3., 4. eta 5. mailako eta LH 1. eta 2. mailako ikasleentzat. Ondoren, zaintza zerbitzua eskaintzen da.
- **Bigarren txanda :** 13:30etik 14: 30era. LH 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleentzat eta DBHko ikasleentzat. Aurretik zaintza zerbitzua dago. Txanda honetako ikasleek 12:30etik 13:30era jantoki-zerbitzutik irten ahal izango dute tutorearen idatzizko baimenarekin.

- ❖ **Izen-ematea:** norbaitek jangela zerbitzua erabili behar izanez gero edo izena emanda egonik ez bada zerbitzua behar, usurbil@ikastola.eus helbide elektronikora mezua bidaliz jakinaraziko du gutxienez bezperan 13:00 aurretik.

Ikastolako zerbitzuak eta prezioak

Ikasturte honetako ikastolako eta zerbitzuetako kuotak jarraian adierazten dizkizuegu. Horien kobrantza **hilaren 16an** egingo da.



*** Kooperatibako kuota osagarria eta elkartasun-kutxa.**

2022/23 ikasturtean Kooperatibako kuota osagarria hileko eta ikasleko **38,76 €** izango da. Elkartasun-kutxa, **4,10 €** hileko eta familiako. Kuota horiek **12 hilabetez (iraila-abuztua)** kobratzen dira.

*** Liburutruk.**

Ekainean 60 €-ko bermea kobratu zen eta iraileko erreziboekin batera, gainontzeko likidazioa kobratuko da. Prezioak honakoak izango dira:

- LH: 54,35 €

- DBH: 82,30 € + hautazkoak: DBH4 Fisika/Kimika: 15,90 €

DBH4 Biologia/Geologia: 15,90 €

DBH1, 2 eta 3 Frantsesa: 20,30 €

*** Liburu digitalak DBH.**

DBH1., DBH2. eta DBH3. mailetan Frantsesa digitalki ere egiten dute eta bere kostua **16,85 €** izango da.

*** Hatz10.**

LH4., LH5. Eta LH6. Mailan mekanografia ikastaroa egiten dute eta bere kostua **5 €** izango da.

*** Ikasle-asegurua.**

Ikaslearen istripu-asegurua urteko prezioa **14,60 eurokoa** izango da eta urrian kobratuko da. Zerbitzu mediku guztiak kontzertatutako zentrori joanez emango dira.

*** Bazkide kuota.**

Udarregi Ikastola guraso kooperatibako urteko bazkide-tza kuota **12,02 eurokoa** izango da eta azaroan kobratuko da.

***Garraioa.**

Garraio-zerbitzuaren hileko kuota **55,00 eurokoa** (12 hilabetez) izango da. Erabilera soltetarako zerbitzua eskainiko da. Horretarako, idazkaritzarekin jarri harremanetan.

***Goizeko zaintza.**

Goizeko 8:00etatik 9:00etara eskaintzen da zerbitzua. Arduradunak Idoia Encinas eta Iban Maritxalar izango dira. Kuota **28,00 euro hileko** izango da **10 hilabetez**.

***Jangela.**

Jangelako kuota, bazkaldar-kopurua eta jangelaren erabileraren arabera kalkulatuzen denez, izen-ematearen arabera kalkulatu da eta jakinaraziko zaizue buletin bidez. Iraileko menuak egun solteka kobratzen dira eta menu bakoitza **7,50 €**. Jangelako menuen kobrantza hurrengo hilabetean burutzen da.

Telefono mugikorra eta smartwatch arautegia ikastolan

Azken urteetan ikasleak ikastolara ekartzen dituzten Smartwatch edo erloju adimenduekin, egunerokotasunean arazoak izaten ari gara. Arazo hauek, aipaturiko gailu hauek dituzten jolas, kamara eta aplikazio desberdinek sortzen dizkigute.

Bestalde gure ikasleen adina kontuan hartuta, ulergarria da gailu hauen baliabide ugariak ongi kudeatzeko gai ez izatea.

Ondorioz, gai honekin loturik ikastolak duen arautegia bidaltzen dizuegu.



- Debehatuta dago telefono mugikor eta smartwatch-en erabilpena ikastolako ordutegian, jangela eta zaintza barne.
- Gailua ezingo da soinean eraman, motxilan gordeta eraman beharko dute.
- Ikastola ordutan itzalita edukiko da.
- Irteeretan: Egun edo gaua pasatzeko irteeretan, telefono edo smartwatchen erabilpena ikastolan arautzen den berbera da.
- Arau hau hautsiz gero (ikastolan edo irteeretan), lehenengo aldian ikasleari gailua kendu egingo zaio, gurasoei deitu eta gailua gurasoei itzuliko zaie.

Bertsolaritza 2023/2024

Aurten ere, guraso talde baten eskutik, bertsolaritza eskolak antolatuko dira LH4, LH5, LH6, DBH1 eta DBH2 mailako ikasleentzat.

Noiz: astelehenero Udarregi eraikinean 12:30etik 13:30era eta 13:30etik 14:30era (urritik maiatzera)

Kuota: 65 euro

Kontaktua: 608 768 539 (Whatsapp)

Izena emateko azken eguna: irailak 15



Baxurde krosa

Irailaren 17an, igandea, txikien baxurde krosa antolatu da.

Eskola kirolaren legea dela eta, lasterketan eskualdeko edo aldameneko eskualdeko umeek parte hartu ahalko dute besterik ez (Donostialdea, Tolosaldea, Azpeitialdea eta Irungaldeakoak).

Lasterketak ez dira lehiakorrek izango.

ORDUTEGIAK:

12:00h:

Irteera bateratu bat egingo da Benjamin (2014/2015) (8-9 urte) eta Alebin (2012/2013) (10-11 urte) kategoriko umeentzat eta 600 metroko zirkuitu bati bira bat emango diote, lehen erdia antolakuntzagatik bideratua izanez eta bigarren erdia beraien erritmora joaten utziko zaie, beti antolakuntzaren begiradapean.

12:10h:

Irteera bateratu bat egingo da Infantil (2010/2011) (12-13 urte) eta Kadete (2008/2009) (14-15 urte) kategoriko umeentzat eta 1000 metroko zirkuitu bati bira bat emango diote eta beraien erritmora joaten utziko zaie hasieratik, beti antolakuntzaren begiradapean.

12:20h:

Prebenjaminen artean ere urtero bezala, 200m-ko lasterketa bat antolatuko da, denbora guztian antolakuntzagatik bideratua izanez. Adin hontako umeak, egunean bertan apuntatu ahalko dira probara.

Izena emateko: <https://inscripciones.kronoak.com/.../xiv-baxurde-krossa>



HAUR HEZKUNTZA

Baso-eskola

Iaz bezala, aurten ere Baso Eskolaz goutzen jarraituko dugu, baina eremua prestatzeko gurasoen laguntza behar dugu. Beraz, auzolanerako deialdia egin nahi dugu **irailaren 22**rako, ostirala. Arratsaldeko **16:30ean Mahaspildegiko aparkalekuan** bilduko gara.

Egin beharreko lanak honakoak dira:

- Erreka arroa garbitu.
- Bertan dauden kainaberak pilatu.
- Zaborra bildu.

Lanerako beharko ditugun erramintak:

- Eskularruak
- Aitzurrak eta palak
- Zakarrak biltzeko ontziak
- Orgak (karretillak)

Aurrez, parte hartzera animatzen zaretenoi gure eskertza adierazi nahi dizuegu ikastolatik.

Mila esker!



Guraso-bilerak

Bilera orokorretako datak jakinarazi nahi dizkizuegu:

HH 4: Irailak 18. [Ikus txostena](#)

HH 5: Irailak 19. [Ikus txostena](#)

Bilerak, haurren geletan egingo ditugu, **16:45ean**. Bilerak euskaraz egingo dira. Inork itzulpenik beharko balu, TELEGRAM aplikazioa instalatuta ekarri beharko du mugikorrean, aurikularrekin batera.

Zaintza zerbitzua egongo da.



LEHEN HEZKUNTZA

Baso-eskola

laz bezala, aurten ere Baso Eskolaz gozaten jarraituko dugu, baina eremua prestatzeko gurasoen laguntza behar dugu. Beraz, auzolanerako deialdia egin nahi dugu **irailaren 22**rako, ostirala. Arratsaldeko **16:30etan Mahaspildegiko aparkalekuan** bilduko gara.

Egin beharreko lanak honakoak dira:

- Erreka arroa garbitu.
- Bertan dauden kainaberak pilatu.
- Zaborra bildu.

Lanerako beharko ditugun erremintak:

- Eskularruak
- Aitzurrak eta palak
- Zakarrak biltzeko ontziak
- Orgak (karretillak)

Aurrez, parte hartzera animatzen zaretenoi gure eskertza adierazi nahi dizuegu ikastolatik.

Mila esker!



Guraso-bilerak

Bilera orokorretako datak jakinarazi nahi dizkizuegu:

Irailak 20: **LH 4.** [Ikus txostena](#)

Irailak 21: **LH 1.** [Ikus txostena](#)

Irailak 25: **LH 3.** [Ikus txostena](#)

Irailak 26: **LH 6.** [Ikus txostena](#)

Irailak 27: **LH 2.** [Ikus txostena](#)

Irailak 28: **LH 5.** [Ikus txostena](#)

Bilerak, 2. solairuan egingo ditugu, **16:45ean**.

Ez da zaintza zerbitzurik egongo.



BIGARREN HEZKUNTZA

Guraso-bilerak

Bilera orokorretako datak honako hauek izango dira:

Urriak 2: **DBH 2 eta DBH 3**

Urriak 3: **DBH 4**

Urriak 4: **DBH 1**

Bilerak, DBH-ko eraikin gorrian egingo ditugu, **17:00etan**. Bilerak euskaraz egingo dira. Inork itzulpenik beharko balu, TELEGRAM aplikazioa instalatuta ekarri beharko du mugikorrean, aurikularrekin batera.

